LURRALDEA ETA ARKITEKTURA

Etxearen planoa

ULA IRURETAGOIENA

Badago zerbait oso boteretsua etxe-familiar baten oin-planoan; entitate emozional bezala jokatzen du. Planoak etxearen ateak eta gelak bere lekuan kokatzen ditu, errealitatea marrazteko geometria ariketa gisa. Hara non, etxearen delineazioa, familietan esan gabe gelditzen diren horien guztien eta gogor esandako beste horien gordailu da. Familia-harremanak etxeko pareten barnean janaria prestatzen, pizten eta amatatzen direlako. Etxeak ez du ez begi ez belarririk, baina testigu isilaren papera hartzen du. Familia-kideen ahotik ateratako hitzen dirdira gorpuztutako memoriara itsasten denean etxeak gertaera hori betikotzen du, partaideek elkarbanatutako subjektu bihurtzen delako.

Horregatik, etxe familiarraren plano batek badu aukera urte askotan isildutako gatazka bat bat-batean eztandarazteko. Demagun, oinordetza banaketa egoera batean, edo etxearen eraldaketa-prozesu batean. Planoko logela eta pasilloaren aldamenean eta gela bakoitzaren azaleraren atzealdean argitaratzen dira haserreak, inbidiak, jeloskortasuna, amorruak, beldurrak. Mina. Horrelakoetan, planoaren gainean erabaki arkitektonikoen inguruan hitz egitea egoera konplexua suerta daiteke, ze etxearen logela eztabaidagai bada ere, eztabaidaren oinarrian logelarekin zerikusirik ez duten gaiak daude. Argudioak eta emozioak eztabaidan sartzen dira, adostasuna eta ulermena zeharo zailduz.

Etxe familiarraren planoak egoerak pizteko gaitasuna duen bezala, sendatze bideak lantzeko tresna ere izan daiteke. Etxearen planoak zehaztapen bat mugitzen duelako eta batzuetan errazagoa delako metroen eta orientazioaren bidez komunikatzea min historikoen bidez baino. Planoak espazioak ordenatzen dituen bezala ordenatu ditzake argitu edo esan gabekoak, metafora eta errealitatearen kudeatzaile paper bikoitzean.

Argi dago arkitektura bulegoak baduela zenbaitzuetan psikologia zentro baten itxura, eta nire lanbidea gehiago maitatzea egiten du. ●

ANALISIA

Betor XXI. mendeko Ostpolitik-a

XABIER LETONA BITERI

NATOko joan den asteko gailurrari so eginda hainbat galdera mahaigainera daitezke, bat honakoa: zer egingo lukete Europako herrialde nagusiek AEBek datorren astean Groenlandia inbadituko balute? NATOk AEBen aurka jo beharko luke, baina bistan da hori ez litzatekeela gertatuko. Airean geratzen da erantzuna, baina argi dago zentzuzkoena litzatekeela bide diplomatikotik bideratzea konponbidea. Horren arrazoiak begi bistakoak dira.

Kontua da antzeko arrazoi ugari egon daitezkeela ekialdera begiratu eta Errusia-Ukrainako gerran antzera jokatzeko, baina Europako estatu nagusienen erantzuna erasokorra izan da lehen unetik. Horrek, hasieratik zabaldu du bide oso arriskutsua aurrera begira. Alemania, Frantzia eta Erresuma Batuaren helburua Errusia higatzea bada, lortu dute. Duela bi urte, Errusia poliki baina etengabe aurreratzen ari zen gerra frontean, Ukraina oso egoera larrian jarrita. Dena den, Mendebaldeko laguntza militarrari esker, eutsi egin dio eta azken hilabeteetan kolpe gogorrak ematen ari da errusiar atzeguardian, hildako zibil dezente eraginda eta, batez ere, Errusiako energia gune ugari kolpatuta. Gaur gaurkoz, alabaina, ez da ikusten bake negoziazioa baino beste irtenbiderik, eta horretan ari dira diplomaziaren frontean.

NATOk eta Europar Batasunak inbasio errusiarraren mamua astindu dute, Bigarren Mundu Gerraren ondoren Europan izandako berrarmatze gastu handiena hauspotzeko: NATOko iturrien arabera, 2015etik 2025era %82,76 handitu da erakundearen gastu militarra. Dena zentzu bako lasterketa militarrean, Errusiarekin gailendu daitekeen irtenbide bakarra negoziazioarena denean. Muturrera jota, eta NATOk arrazoi izango balu ere, etorkizuneko inbasioaren mamu hori bakarrik ezaba daiteke Errusia suntsituz. Norbaitek pentsa dezake hark hori onartuko duela aurretik beste hamaika txikitu barik? Inork ez. Eta hain zuzen ere, horregatik gaude bete-betean *si bis pacem parabellum* logikan. Negoziazio guztietan gertatzen den moduan, alde bakoitzak ahalik eta etekinik handienarekin iritsi nahi du bake akordiora.

Zenbat luzatu daiteke egungo egoera ikusita Errusia eta Ukraina direla –eta batez ere azken hori– egiazki odolusten ari direnak? Bi eszenatoki ari dira plazaratzen apurka hainbat analisi eta hedabidetan: bat, bi Koreen arteko gatazka-bake eredu beti tenkatua, baina ez hilgarria gatazkako bi aldeentzat; bi, Indiaren eta Pakistanen arteko intentsitate baxuko gerra, odol jario handiarekin eta eztanda nuklearraren mehatxu etengabearekin.

Beste bi irtenbide ildo ere badira: lehena da onuragarriena, bakea lehenbailehen sinatzea eta epe motz-ertainari begira, XXI. mendeko Ostpolitik-ari berriz heltzea apurka, Errusiarekin harremanak normaldu, areagotu eta datorkigun mundu multipolarrean bestelako Europa bat eraikitzen hasi. Amestea zilegi da herritarrontzat, batez ere beste irtenbideak europar gehienontzat suntsipena dakarrenean. ●

RTVE